| 12/1 Titulua : | Helburua : | Gaiari doakion jakintasuna : | Hizkuntzari doakion jakintasuna : |
|---|---|---|---|
| Oihanaren balioa | | | |

# Pirinioetako oihanaren historia

**Lauki bakoitzari dagokion testua artoski irakur ezazu eta laukiaren barnean, marrazki bat egizu edo argazki bat itsats.**

| Duela 35000 urte | Erdi Aroa | XVII eta XVIII. mendea | XIX. mendea | XX. mendea | Etorkizuna |
|---|---|---|---|---|---|
| Oihana : bilketa eta ihizigunea. Cro-magnon jendearen garaia. | Jendetza hazten ari da. Oihanak mozten dira laborantzan eta eraikuntzan baliatzeko. | Itsasontzien masten egiteko, Colbert-ek Pirinioetako oihanaren ustiatzea erabakitzen du. Anitz haritz eta izei landatu zen itsasontzien eraikitzeko. | Itsas-pinu oihaneztatze handiak egiten dira Landetan, erretxinaren biltzeko. Pirinioetan aldiz, oihanak mozten dira meategiei ikatzaren hornitzeko. | Oihana indartuko da emeki-emeki baserrialdea husten ari delako. Frantzian, oihanaren babesteko legeak sortzen dira eta oihana aisaldi gune ere bilakatzen da. | Oihanaren geroa irudika ezazu. |

| Izena : | Ikas neurria | | | Norekin egina | | | Eguna : |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ona | artekoa | eskasa | heldu batekin | lagun batekin | bakarrik | |

| 12/2 Titulua : | Helburua : | Gaiari doakion jakintasuna : | Hizkuntzari doakion jakintasuna : |
|---|---|---|---|
| Oihanaren balioa | | | |

# Oihanak ekartzen duena

**Galde hauei ihardets.**

| | | |
|---|---|---|
| Zuhaitzek oxigenoa hornitzen dute. | BAI ☐ | EZ ☐ |
| Zuhaitzen beharrik ez dute jendeek bizitzeko. | BAI ☐ | EZ ☐ |
| Jendeari oxigenoa beharrezkoa zaio. | BAI ☐ | EZ ☐ |

**Eta orain, oihanari zer zor diogun azaltzeko, testu laburra idatz ezazu.**

..............................................................................................................................................

..............................................................................................................................................

..............................................................................................................................................

..............................................................................................................................................

**Erranaldi hauek osa itzazu hutsuneak betez.**

*kandelen – papera – ezkurrean – bolbora – zurtatearen – bihikak – onddoak*

Egurra mozten da, porroskatzen eta ura emanez . . . . . . . . . . . . . . egiten da.

Landetako itsas-pinuen erretxina . . . . . . egiteko baliatzen da.

Larrazkenean . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . gogotik biltzen ditugu oihanean.

Zuhaitzen zura baliatzen dugu teilatuen . . . . . . . . . . . . . . . . . egiteko.

Basurdeak haritzaren . . . . . . . . . . . . . . . . alhatzen dira.

Oxigenoa hornitzen dutelako, oihanak munduaren . . . . . . . . . . . . . direla erran ohi da.

Zumalakarren egurretik dator . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

| Izena : | Ikas neurria | | | Norekin egina | | | Eguna : |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ona | artekoa | eskasa | heldu batekin | lagun batekin | bakarrik | |

**Titulua :**

Oihanaren balioa

# Oihanaren beharra

Lurzorua higaduratik gerizatzen du.



© MIFEN/De Joantho

Sugaitako egurra hornitzen digu eta zura altzari, paper eta tresnen egiteko.

Landare jangarrien lekua da.



© MIFEN/De Joantho



© MIFEN/De Joantho




Hostoen, fruituen eta hazien bidez, animalien bazkalekua da.



© MIFEN/De Joantho

Jendeen aisialdi gunea eta pausa lekua da.



© MIFEN/De Joantho

Arnasaren hartzeko ahala ematen digu oxigenoa hornituz. Munduaren hauskoa edo birika da.



© MIFEN/De Joantho

© MIFEN/De Joantho



Eurialdietan ura irensten du eta idorteetan aldiz gibelera ematen.

© MIFEN/De Joantho



Animalien gordelekua da.

| Izena : | | Eguna |
|---|---|---|
| | | |

| 12/4 Titulua : Oihanaren balioa | Helburua : | Gaiari doakion jakintasuna : | Hizkuntzari doakion jakintasuna : |
|---|---|---|---|

**Zurezko gauza guztiak kolorezta itzazu.**

Etxe barne bat 1900ean



**Berdin egizu hemen.**

Etxe barne bat gaur egun



| Izena : | Ikas neurria | | | Norekin egina | | | Eguna : |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ona | artekoa | eskasa | heldu batekin | lagun batekin | bakarrik | |

| Titulua : | Helburua : | Gaiari doakion jakintasuna : | Hizkuntzari doakion jakintasuna : |
|---|---|---|---|
| Oihanaren balioa | | | |

# Nola egiten da papera ?

**Azalpenak irakurri eta kontuan hartuz, irudi hauek motz eta ordenan ezar itzazu.**

Egurgileak zuhaitza mozten du.

Zuhaitza papertegira doa kamioiez.

Enbor-biribila zintzikatu eta, ezpalak gelditzen dira.

Egur-ezpalak produktu kimikoei nahasi eta, erosaraziak eta malgutuak dira.

Ondotik paper-ore bilakatzen da. Ore hori ongi garbitzen da.

Orea bahe baten gainean hedatua da iragazteko.

Orea bi arrabolen artean iraganez lisatua da.

Papera liburuen, kazeten eta kaieren egiteko baliatuko da

| Izena : | Ikas neurria | | | Norekin egina | | | Eguna : |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | ona | artekoa | eskasa | heldu batekin | lagun batekin | bakarrik | |

**Titulua :**

Oihanaren balioa

## Zura zertako ?

● guti ●● hein batean ●●● anitz

| Zertako | Telefono edo argindar hagak | Zerrailuen hesolak/ mahastizurkaitzak | Meategietako galerien pordonkatzeko zurak | Trenbideetako langak edo trabesak | Dupak | Zurtatea | Zurgintza | Kesagintza | Biragintza (jostailu, eskalapoin...) | Tresnen giderrak | Papera |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Ezaugarriak** | zuzena, arina/ lantzeko erraza | ustelezina | malgua / hauts ezina | pisu jasailea | plegagarria | erresistentzia handikoa, arina | kolore eta itxura ederrekoa | arina/ mardoa | homogeneoa/ leun erraza | malgua/ sendoa | zuria/ mardoa |
| Haltza | | | | | | | | ● | ● | | ● |
| Urkia | | | | | | | ● | | ● | | ●● |
| Xarma | | | | ● | | | | | ● | | ● |
| Gaztainondoa | | ●● | ● | | ●● | | ●● | | | | ● |
| Haritza | | ●● | ● | ●●● | ●●● | | ●●● | | ● | | ● |
| Lizarra | | | | | | | ● | | ● | ●●● | |
| Pagoa | | | | ●●● | ● | | ●●● | ●● | ●● | ●● | ●● |
| Basagerezia | | | | | ● | | ● | | ● | | |
| Intzaurra | | | | | | | ● | | ● | | |
| Zurzuria | | | | | | | ● | ●●● | | | ●●● |
| Platanoa | | | | | | | ●● | | ●● | | |
| Tirula (ezkia) | | | | | | | ● | | ● | | |
| Izei gorria | ●●● | ● | ●●● | | ●● | ●●● | ●● | ●●● | | | ●●● |
| Itsas pinua | | | ● | ● | | ● | ●●● | ●●● | | | ●●● |
| Pinu gorria | ●●● | ● | ●●● | | | ●●● | ●● | ●●● | | | ●●● |
| Izeia | ●●● | | ●●● | | ●● | ●●● | ●● | ●●● | | | ●●● |

| **Izena :** | | **Eguna** |
|---|---|---|
| | | |